

Andramaixak • Aretxabaleta

Hasi dira andramaixak!

Gaur hasiko dira lau egun eta lau gauez luzatuko diren Aretxabaletako jaiak; egitarau zabala izango dute aurten

Andoni Arana | **ARETXABALETA**

Urtero legez, eman zaie hasiera Andramaixei. Abuztu erdi-erdian, oporren ekuadorrean, herriaren bizigarri ditugu festok. Gaurtik hasita abuztuaren 17ra bitartean, ez da saltsarik faltako herriko karriketan. Gaurkoa, lehenengo eguna, gainontzeko egunak baino ari-nagoa dugula esan genezake, egitarauari begirada bat botaz gero.

Gaurkoan, jendea izango dugu protagonista: oporretatik bueltan datozenak zein herrian bertan geratu diren apurrak. Herriko plazan eta Durana kalean ezarri dituzte emanaldietarako taulak, eta kaleak goitik behera festetako apain-garriez josita daude. Hau ikusita, jaiok dakartena gogora ekarri beharrean nago, gutako inor ez baita libratuko hemengo sal-tsa probatzetik.

Lau egun eta lau gautako festa

Andramaixek herriko jendea dute protagonista. Jaietako egitaraua dugu horren erakusgarri ezin garbiagoa. Izan ere, haurrek, helduek zein gazteek eurei egokitutako ekintzak aurki ditzakete egun batean zein bes-tean. Bihar, esate baterako,



PABLO S. QUIZA

Trapu Zaharra antzerki taldearen kale animazioarekin lehertu arte barre egiteko aukera izango da aurten, Aretxabaletan.

haurrek aukera mordoa izango dute. Goizean eta arratsaldean, haurrentzako parkea ezarriko da, herriko plazan, eta arratsalde aldera, berriz, herriko pilota-

ri gazteen arteko partidak jokatuko dira, Iturrigorri pilotalekuan. Trapu Zaharra antzerki taldearen kale animazioa, zezen mekanikoa... Aukera

zabala izango da, beraz, txikientzat.

Baina, horretaz gain, kontzertuentzako ere bada tarterik festetan. Jada Euskal

Herrian aski ezagunak ditugun Hemendik at taldeak txosnetan joko du etzi. Halaber, Mariachi Huapango eta Iratxo taldeen emanaldiak ere izango dira. Rantxerak, korridoak, balsak, boleroak... Denetik entzun eta dantzatzeko aukera izango dugu datozen egunotan, Andramaixetan. Bestalde, urtero legez, hortxe izango ditugu aurten ere txosnak jaien giroa goritzeko. Eta ezin ahaztu, era berean, azken eguneko herri bazkaria, jolasak, sokamuturra, Aretxabaletako zerua argituko duten suzko errubarak...

Ikuskizunei dagokienez, urteroko suzko erruberez gain, pilotari profesionalen partidak izango ditugu ikusgai egunotan. Bi partida bikainez gozatzeko aukera izango dugu: bata, Beloki II.a-Galarza VI.a Retegi VI.a-Nalda III.aren artekoa eta bestea, berriz, Berasaluze-Albizuri bikoteak Arbizu eta Pascualen aurka jokatuko duena.

Jaiotan ere, herrian gaude-nok Euskal Presoen aldeko oihua entzunaraziko dugu, Kepa Urria Andramaixetan gure artean izan dadin.

Aukera zabala eskaini zaigu. Bi aldiz pentsatu gabe, ez loak hartu eta egin dezagun topa aurtengo Andramaixegatik!!

BASABE JATETXEA

- Eguneroko menua.

- Kartara.

- Jaunartzeak, Bataioak, Jaiak

INDUSTRIALDEA Tel.: 943 79 91 84 ARETXABALETA



ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Pabilioi Industrialen sustapena
eta eraikuntza

Basabe poligonoa E 0-10


Tf.: 943 79 62 80

20550 Aretxabaleta



ARETXABALETAKO UDALA

Jaiak ondo pasa !!



EGUZKI GRAF

INPRIMATEGIA

- LIBURUAK • ALDIZKARIAK
- KATALOGOAK
- MERKATAL INPRESOAK
- FILMATZE ZERBITZUA

Basabe poligonoa - Tel.: 943 79 29 41
Faxa: 943 79 18 44 - ARETXABALETA



URKULU, S.L.

Hornidurak

Mitarte, 23
20550 ARETXABALETA
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 96 66
Faxa: 943 77 10 33



Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura

Araba etorb.
ARETXABALETA
☎ 943 79 88 95



MAPFRE
ASEGURUAK

Errekabarren, 3
Tel.: 943 71 17 34
ARETXABALETA



URBALTZ TABERNA

Euskal Presoak Euskal Herrira

Mitarte, 19 - ARETXABALETA